**Bigarrena.-** Oinarri Bereziak onartzea; berorietan programa bakoitzaren xehetasunak zehazten dira, ondoko arloetan:

**Segundo.-** Aprobar las Bases específicas, donde se concretan las particularidades de cada programa, de las siguientes áreas:

**1.- Euskara-Hezkuntza**
Barnetegietara edo herritik kanpoko

**1. Euskera-Educación:**
Subvenciones para gastos de

euskaltegietara euskara ikastera, eta UEUra normalizazioarekin zerkusia duten beste uda-ikastaroetara doazen herritarreentzako dirulaguntzak

aprendizaje del euskara en internado o en euskaltegis fuera del municipio, y participación en cursos de UEU o cursos de verano relacionados con el aprendizaje del euskara.

Aurrekontua 2.080€

Presupuesto: 2.080 €

- Irakaskuntza arautuaren eremuan diharduten ikastetxeei eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko dirulaguntzak

-Subvenciones a los centros escolares reglados para el desarrollo de actividades extraescolares.

Aurrekontua 38.963€

Presupuesto: 38.963 €

- Konpoko erretuluak irudi korporatiboa eta web gunea euskaraz jartzen dittuzteneentzako dirulaguntzak.

-Subvenciones para ofrecer en euskera la rotulación exterior, imagen corporativa y página web.

Aurrekontua 1.200 €

Presupuesto: 1.200 €

**2. Kultura**

- Urretxuko tabernetan euskarazko antzezpenak musika ikuskizunak edo beste edozein kultura adierazpen egiteko dirulaguntzak

**2. Cultura.**

-Subvenciones para realización de espectáculos teatrales y musicales u otras expresiones culturales en euskera en los establecimientos hosteleros de Urretxu.

Aurrekontua 4.500 €

Presupuesto: 4.500 €

-Kultura elkarteei urteko egitarauak edo/eta ekintza bereziak garatzeko dirulaguntzak

-Subvenciones para realización de programas anuales y/o programas especiales para las diferentes asociaciones culturales.

Aurrekontua 115.418 €

Presupuesto: 115.418 €

Film laburrak eta/edo bideoklipak egiteko dirulaguntzak.

-Subvenciones para realización de cortometrajes y/o videoclips.

Aurrekontua 1.800 €

Presupuesto: 1.800 €

**3. Kirolak**

**3. Deportes.**

-Kirol jarduera arrunt eta apartekoetarako dirulaguntzak

-Subvenciones destinadas a actividades deportivas ordinarias y extraordinarias.

Ohiko dirulaguntzak aurrekontua 54.000€
Aparteko ekitaldieen dirulaguntza aurrekontua 15.450 €

Presupuesto subvenciones ordinarias: 54.000 €
Presupuesto subvenciones actividades de carácter especial: 15.450 €

**4.- Gizarte zerbitzuak**

Urretxun, beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean garatuko duten elkarteei dirulaguntza

**4. Servicios Sociales.**

-Subvenciones a asociaciones que desarrollen su actividad en el ámbito de los servicios sociales de Urretxu.

Aurrekontua 18.000 €

Presupuesto: 18.000 €

- Nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzak

-Subvenciones para la Cooperación Internacional.

Aurrekontua 90.000 €

Presupuesto: 90.000 €

- Udal tasa eta prezio publikoan ordainketarako laguntzak .

-Ayudas económicas para el pago de las tasas y precios públicos municipales.

Aurrekontua 3.000

Presupuesto: 3.000 €

- Droga menpekotasunen beste menpekotasun psikologikoen tratamendurako eta nerabeen errisku egoerak konpontzeko dirulaguntza ekonomikoak.

-Ayudas económicas para acudir a tratamiento de drogodependencias, otras adicciones psicológicas y situaciones de riesgo de adolescentes.

Aurrekontua 9.000 €

Presupuesto: 9.000 €

Alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu eta Martin zinegotziek (10 boto) baiezko botoa eman dute, eta Cantero eta Pastor zinegotziek (2 boto) aurkakoa; ondorioz, honako hau erabaki da:

Con los votos a favor del Sr. alcalde y de los concejales sres.Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu, y Martín ( 10 votos), y los votos en contra de los ediles sres Cantero y Pastor ( 2 votos), se acuerda:

**Bakarra.-** Ondorengo oinarri bereziak onartzea:
-Espetxeetan preso dauden senideenttzat garraiko banakako dirulaguntzak

Aurrekontua 8.600 €

**Unico.-** Aprobar las Bases específicas siguientes:
-Ayudas individuales de transporte para familiares de personas en régimen penitenciario.

Presupuesto 8.600 €

**5.- Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Gizarte Ekimeneko batzorde buru Ostiza andreak batzorde horrek proposatutako adierazpen instituzionala irakurri du; testua hitzez hitz agertzen da ondoren:

**5.- Día Internacional de las mujeres**

La sra. Ostiza, presidenta de la Comisión de Acción Social, procede a dar lectura a la declaración institucional propuesta por esta Comisión, cuyo texto literal se transcribe a continuación:

*Gaur egungo testuinguru sozial eta politikoan, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute gazteei protagonismo handiagoa eman behar zaiela politika publikoen eraikuntzan, agente aktibo eta onuradun gisa. Etorkizunerantz aurrera egitea, etorkizuneko giltzarri direnen eskutik. Etorkizun horretan emakumeen protagonismoa ere bultzatu nahi da herritartasunaren gauzapenean; horren haritik, Instituzioak, eta horien artean Udalak, dagoeneko zenbait urte daramatzagu lanean herritarren, batez ere emakumeen, berdintasun eskariei erantzun nahian, eta, ahalegin ez gutxirekin, emaitza nabarmenak lortu ditugu zentzu horretan.*

*Emakume gazteen kasuan, zeintzuek etorkizun hurbilean oinarrizko*

*En el actual contexto social y político aumentan las voces que claman por dar a la juventud un protagonismo mayor en la construcción de las políticas públicas, tanto en su papel de agente activo, como de receptora de dichas políticas. Se trata de avanzar hacia el futuro de la mano de quienes constituyen la pieza clave del mismo. Un futuro en el que también se pretende impulsar el protagonismo de las mujeres en el ejercicio de sus derechos, para lo que las Instituciones, y entre ellas, los Ayuntamientos, llevamos ya algunos años tratando de dar respuesta a las demandas de igualdad de la ciudadanía, sobre todo de las mujeres, y, con no poco esfuerzo, obteniendo logros destacables en este sentido.*

*En el caso de las mujeres jóvenes, que asumen ese doble reto de constituirse*

protagonista izateko erronka bikoitza baitute, beraien aurrendariek egindako lana aurrerapen eta bultzada handia da egiteko horretan. Dena dela, errealitate berri bati egin behar diote aurre; izan ere, desberdintasunaren adierazpenak, sarritan, zorrotzagoak dira, eta itxuraz berdintasunean oinarritutako errealitatea bizi dute.

Nerabezaroan egindako ikerketek[1] jokabide sexistak erakusten dituzte, bai eta nerabeen artean berdintasun urriko ohiko rolak daudela ere; era berean, eraso matxistek gora egin dutela edo horiek horrela identifikatzeko zailtasunak daudela ere erakusten dute. Hain zuzen ere, hori egiaztatu da azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Euskadiko zenbait herritan egindako ikerketan. Ikerketan, gazteen partaidetza eta protagonismoa izan da ardatz nagusia.

Hori guztia dela eta, 2010eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean,

JAKINIK Udalek daukagun erronka gazteen artean desberdintasuna eragiten duten erak identifikatu eta horien aurka egitea ahalbidetuko duten komunikazio-bideak ezartzea dela, bai eta euren esku baliabideak uztea eta jabekuntza ahalbidetzea ere,

ADIERAZTEN DUGU emakume eta gizonen eskubideak oso-osorik eta

en protagonistas en un próximo futuro, el trabajo hecho por sus antecesoras ofrece un gran avance e impulso para ello. Sin embargo, afrontan una nueva realidad donde las manifestaciones de la desigualdad a menudo se muestran más sutiles, viviendo una realidad de aparente igualdad.

Los estudios llevados a cabo en la adolescencia[2] revelan comportamientos sexistas y la reproducción de roles tradicionales poco igualitarios entre adolescentes, además de un aumento en las agresiones machistas o dificultades para identificarlas como tales. Así se ha constatado también en el seno de la investigación llevada a cabo en distintos municipios vascos con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, donde la participación y el protagonismo de las jóvenes ha sido el eje central de la misma.

Por todo ello, en este 8 de marzo de 2010, Día Internacional de las Mujeres,

CONSCIENTES, de que el reto al que nos enfrentamos los Ayuntamientos es establecer canales de comunicación que permitan identificar y actuar contra las formas en que se materializa la desigualdad en las jóvenes, dotarlas de recursos y favorecer su empoderamiento,

DECLARAMOS que es necesario garantizar el pleno ejercicio de los

*berdin-berdin bermatu behar direla, eta bizitzan hain garrantzitsua den garai hori landu behar dela, gizon eta emakumeen arteko jarrera positibo eta berdintasunezkoak finkatzeko, betiere, emakumeek berdintasunean oinarrituta gauza dezaten beraien herritartasuna.*

*Eta, horretarako, orain inoiz baino gehiago, KONPROMISOA HARTZEN DUGU berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako tokiko politikak sendotzeko, bereziki neska gazte eta nerabeei begira, euren partaidetza aktiboa sustatuz helburu hauen lorpenerako.*

*Guzti hau IKUSARAZI asmoz, Udal honek herritarrei dei egiten die, Martxoaren 8an Areizaga-Kalebarren enparantzen arratsaldeko 7retan egingo den konzentrazioara etor daitezen.*

Eztabaida labur bat egin ondoren, gaia botoetara eramanda, aho batez erabaki da:

**Bakarra.-** Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Adierazpen Instituzionala onartzea, hain zuzen ere goian idatzita geratu den testua.

**6.- Planeamenduko Aholkularitza Kontseilua:**
**1) Sorrera**
**2) Ordenantza arautzailea: Lehen onespena**

Alkate jaunak azaldu du Planeamendu eta Etxebizitza Batzordean erabaki zela

*derechos de las mujeres y de los hombres de forma igualitaria y trabajar en esa etapa de juventud, tan crucial en la vida, para asentar conductas positivas e igualitarias entre hombres y mujeres, que permitan a éstas ejercer su ciudadanía en pie de equidad.*

*Y para ello, NOS COMPROMETEMOS, ahora más que nunca, a fortalecer las políticas locales a favor de la igualdad y contra la violencia, en especial hacia las jóvenes y adolescentes, impulsando la participación activa de éstas en el logro de dichos objetivos.*

*Con motivo de VISUALIZAR todo lo anterior, este Ayuntamiento hace un llamamiento a los ciudadanos/as del municipio a que acudan a la concentración que tendrá lugar el día 8 de marzo en la plaza Areizaga-Kalebarren a las 7 de la tarde*

Tras un breve debate, y sometido el asunto a votación por unanimidad se acuerda:

**Único.-** Aprobar la Declaración Institucional con motivo de la celebración del Día Internacional de las Mujeres, cuyo texto se ha transcrito en el exponendo de este acuerdo.

**6.- Consejo Asesor Planeamiento**
**1) Creación**
**2) Ordenanza reguladora: aprobación inicial**

El Sr. alcalde expone que en la Comisión de Planeamiento y Vivienda en la que se dictaminó el presente

puntu hau, eta egindako ekarpen guztiak jaso zirela.

Plangintzarako Aholku Kontseilua herritarrek plangintzaren gaian parte hartzeko kontsulta organoa dela jakinarazi du, eta Urretxun horrelako kontseilu bat izatea derrigorrezkoa ez den arren, kontseilua sortzea proposatu da, alderdi politikoen hauteskunde programetan hala jaso zelako.

Esku hartzeen txanda hasita, Lizarraga jaunak adierazi du abstenitu egingo dela, Plangintza Batzorderako deia egin ez zitzaionez ez duelako gai horri buruzko nahikoa irizpiderik.

Agirre andreak adierazi du EAJ alderdiak proposamenaren alde bozkatuko duela, alderdi horren gobernu programan ere jasota zegoelako, eta, gainera, bere taldeak egindako ekarpenak kontuan hartu direlako.

Cantero jaunak eskatu du hitza, eta jakinarazi du alderdi sozialistak kontseilu hori sortzearen aldeko botoa emango duela, nagusiki atxiki gabeko zinegotzien gaiarekin lotuta egin dituzten ekarpenak kontuan hartu direlako. Euren ustez organo plurala dela adierazi du, nahiz eta zenbaitzuek ez zuten pluraltasun hori kontuan izan tokiko sozietate publikoaren Administrazio Kontseilua izendatzeko orduan.

Eztabaida amaituta, gaia bozkatu da

punto, se recogieron las diferentes aportaciones realizadas.
Sigue diciendo que el Consejo Asesor de Planeamiento es un órgano consultivo de participación ciudadana en materia de planeamiento, que a pesar de no ser preceptivo en un muicipio como Urretxu, se propne su creación por estar así recogido en los programas electorales de los diferentes paridos políticos.

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. Lizarraga indica que se va a abstener dado que al no ser citado para la Comisión de Planeamiento no dispone de criterio suficiente al respecto.

La sra. Agirre indica que el PNV va a votare a favor de la propuesta, dado que estaba en su propio programa de gobierno, además de que se han recogido las diferentes aportaciones realizadas por su grupo.

El Sr. Cantero pide la palabra indicando que el gurpo socialista va a votar a favor de la creación de este Consejo, fundamentalmente porque también se han recogido sus aportaciones en relación a los concejales no adscritos. Añade que están de acuerdo en que es un órgano plural, a pesar de que algunos no tuvieron en cuenta esta pluralidad a la hora de designar el Cosnejo de Adminsitración de la sociedad pública local.

Finalizado el debate, se somete el

eta, alkate jaunaren eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Mendia, Cantero, Pastor (PSE-EE) Agirre (EAJ) eta Errazu (EAJ)eta Martin (EB-Berdeak/Aralar) {11 boto} zinegotzien aldeko botoekin, eta { abstentzio 1} Lizarraga, honako hau erabaki da

asunto a votación y con los votos a favor del sr. Alcalde y de los concejales sr@s Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Mendia, Cantero y Pastor (PSE-EE, Agirre y Errazu (PNV) y Martín ( EB-Berdeak/Aralar) {11 votos}, y la abstención del sr. Lizarraga.

**Lehenengo.-** Urretxuko Udalaren Planeamenduko Aholkularitza Kontseilua sortzea, eta Planeamenduko Aholkularitza Kontseiluaren ordenantza onartzea.

**Primero.-** Proceder a la creación del Consejo Asesor de Planeamiento del Ayuntamiento de Urretxu, y aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora del Consejo Asesor de Planeamiento .

**Bigarren.-** Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 49 b) artikulua betetzeko, jendaurrean azaldu erabaki hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz hogeita hamar eguneko epean, beti ere erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

**Segundo.-** En cumplimiento del art. 49 b) de la Ley reguladora de Bases de Regimen Local, someter este acuerdo a información publica mediante la publicación durante treinta días de anuncio en el Boletin Oficial de Gipuzkoa para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Epe hori igaro eta erreklamaziorik ez bada, behin-betikotzat hartuko da onespena.

Transcurrido este plazo sin producirse reclamaciones, la aprobación devendrá definitiva.

**7.- Urretxu-Zumarraga S. Koop Elkartearen eskaera: Pagoeta antzokia uzteko kontratuari amaiera ematea**

Urretxu-Zumarraga Ikastola Koop. Elkarteak aurkeztutako idatzia irakurri da; horren testuak honela dio:

*Urretxuko Udalak eta garai hartan "Asociación Lourdesko Ama Ikastolak" 1992ko uztailaren 14an akordio bat sinatu zuten. Honen bitartez, aipatutako Elkarteak Pagoeta auzoko 4 zenbakian kokatuta dagoen eta bere jabetzakoa den aretoaren erabilera laga zion Udalari. Esandako*

**7.- Solicitud Urretxu-Zumarraga Ikastola S. Coop extinción contrato cesión teatro Pagoeta**

Se da lectura al escrito presentado por Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. cuyo texto se transcribe a continuación:

*Urretxuko Udalak eta garai hartan "Asociación Lourdesko Ama Ikastolak" 1992ko uztailaren 14an akordio bat sinatu zuten. Honen bitartez, aipatutako Elkarteak Pagoeta auzoko 4 zenbakian kokatuta dagoen eta bere jabetzakoa den aretoaren erabilera laga zion Udalari. Esandako*

*Aretoa, antzerki, zinema eta gisa honetako kultur ekintzen erabilerara bideratua izango zen.*

*Aipatu hitzarmenean oinarri bezela ezarritako helburuak urteetan zehar bete izan badira ere, garai hartako inguruabarrak erabat aldatu dira gaur egun. Modu honetan eta Ikastolari dagokionez, ikasle kopuruak izan duen gehikuntza nabariak, aretoa Ikastolako jangela bilakatzeko premia ekarri du.*

*Bestalde Udal Administrazioak aipatutako aretoan garatzen dituen jarduerei dagokionez, azken urteetan Urretxun sortu diren kultura-ekipamendu berriek (Labeaga Aretoa), Udalari lagatako aretoan egiten diren jarduera murrizketa garrantzitsua eragin dute, gaur egun antzerki zein txalaparta entseguak burutzeko soilik erabiltzen direlarik.*

*Aipatutako aurrekariak kontuan izanda, aretoraren erabileraren lagapenari amanera ematea da idatzi honen helburua, eta pagoeta antzokiaren edukitza osoa eta erabiltzeko eskubidea berreskuratzea. Eskaera hau egiteko akordioan zortzigarren klauasulak xedatutakoari heltzen diogu, non bi alderdiek hala eskatuta hitzarmenari amanera eman dakioke.*

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Agirre andreak eskatu du hitza, eta txalaparta eta antzerki taldeak kokatzeko tokirik ba al dagoen galdetu du; Garmendia jaunak baietz erantzun dio.

Martin jaunak hitza eskatu eta aditzera eman du aurkako botoa emango duela, bere ustez erabilera publiko bat galdu egiten delako.

*Aretoa, antzerki, zinema eta gisa honetako kultur ekintzen erabilerara bideratua izango zen.*

*Aipatu hitzarmenean oinarri bezela ezarritako helburuak urteetan zehar bete izan badira ere, garai hartako inguruabarrak erabat aldatu dira gaur egun. Modu honetan eta Ikastolari dagokionez, ikasle kopuruak izan duen gehikuntza nabariak, aretoa Ikastolako jangela bilakatzeko premia ekarri du.*

*Bestalde Udal Administrazioak aipatutako aretoan garatzen dituen jarduerei dagokionez, azken urteetan Urretxun sortu diren kultura-ekipamendu berriek (Labeaga Aretoa), Udalari lagatako aretoan egiten diren jarduera murrizketa garrantzitsua eragin dute, gaur egun antzerki zein txalaparta entseguak burutzeko soilik erabiltzen direlarik.*

*Aipatutako aurrekariak kontuan izanda, aretoraren erabileraren lagapenari amanera ematea da idatzi honen helburua, eta pagoeta antzokiaren edukitza osoa eta erabiltzeko eskubidea berreskuratzea. Eskaera hau egiteko akordioan zortzigarren klauasulak xedatutakoari heltzen diogu, non bi alderdiek hala eskatuta hitzarmenari amanera eman dakioke.*

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra la sra. Agirre para preguntar si se dispone de sitio para reubicar a los grupos de txalaparta y teatro, respondiéndole afirmativamente el Sr. Garmendia.

El Sr.Martín pide la palabra y manifiesta que su voto será en contra porque entiende que se pierde un uso público.

Dagokion Batzorde Informatiboak gai honi buruzko iritzirik eman ez duenez, AJA araudiaren 82.3 artikuluaren arabera, eguneko gai-zerrenda sartzea berretsi da, eta gaia bozkatu da eta, alkate jaunaren eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre (EAJ), Errazu (EAJ), Cantero (PSE-EE) eta Pastor (PSE-EE) {11 boto}, eta Martin (EB-Berdeak/Aralar) zinegotzien kontrako botoekin, honako hau erabaki da:

No habiendo sido este asunto dictaminado por la Comisión Informativa correspondiente, en virtud del art. 82.3 del ROF, se ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día., y sometido a votación, con los votos a favor del Sr. alcalde y de los concejales sr@es Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre (PNV), Errazu (PNV), Cantero (PSE-EE), y Pastor (PSE-EE), {11 votos }, y el voto en contra del concejal Martín (EB-Berdeak/Aralar) por se acuerda:

**Lehenengo.-** Urretxu-Zumarraga Ikastola, Koop. Elkarteak aurkeztutako eskaera onartzea, eta ondorioz, amaiera ematea 1992ko uztailaren 14an Lourdesko Ama Ikastola Elkartearekin sinatutako hitzarmenari; hitzarmen horren bitartez, Pagoeta auzoko 4. zenbakian, beheko solairuan, kokaturik dagoen Pagoeta antzokiaren erabilera utzi zitzaion Urretxuko Udalari.

**Primero.-** Estimar la solicitud presentada por Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop., y en consecuencia dar por finalizado el convenio suscrito con la Asociación Lourdesko ama Ikastola el 14 de julio de 1992, por el se cedía al Ayuntamiento de Urretxu el uso del local sito en la planta baja del edificio sito Pagoeta auzoa nº 4, conocido como Teatro Pagoeta.

**Bigarren.-** Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

**Segundo.-** Notificar este acuerdo a los interesados.

**8.- Udal antolamenduaren proiektua: onespena**

Alkate jaunak adierazi du onartzeko proposatzen den dokumentuaren jatorria aspalditxokoa dela, une honetan dagoen antolamendua aldatzeko beharra ikusi baitzen, eta Langileen Batzordeak ere hainbat eskaera egin zituela. Aldi berean Udala modernizatzeko prozesu bat abiarazi dela ere jakinarazi du, eta, horren ildotik, Legegintzaldi Plana, Urteko Kudeaketa Plana eta Barne Kudeaketarako Batzordea osatu direla

**8.- Proyecto organización municipal: aprobación**

El Sr. alcalde indica que el origen del documento cuya aprobación se propone, viene de hace algún tiempo en el que se vió la necesidada de cambiar el esquema organizativo existente, además de que también existían algunas demandas desde el Comité de Personal. Sigue diciendo que al mismo tiempo se ha puesto en marcha un proceso de modernización del Ayuntamiento, habiéndose

ere esan du.

Bestalde, aurkeztutako dokumentua antolamendu esparru berria dela adierazi du, eta hurrengo urratsetan esparru berri horrek beharko dituen aldaketak egingo direla, legeak horretarako ezarritako bideen bitartez, esate baterako LPZren bidez (lanpostuen zerrenda).

elaborado el Plan de Legislatura, el Plan de Gestión anual y habiéndose creado el Comité de Gestión Interna.
Indica asimismo que el documento que se presenta es el nuevo marco organizativo, siendo los siguientes pasos la materialización de los cambios que este nuevo marco precise, a través de los mecanismos legalmente establecidos, como la RPT.

Zinegotzien txanda hasi denean, Agirre andreak eskatu du hitza, eta bere taldea, EAJ alderdia, abstenitu egingo dela esan du, antolamendu berriaren aurkezpenean hainbat zalantza planteatu baitzituzten eta oraindik zalantza horiek argitu gabe dituztelako. Antolamendu horren arabera langileen gastua handitu egingo dela adierazi du.

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra la sra. Agirre que indica que su gurpo, PNV, se va a abstener, dado que en la presentación de la nueva organización se les plantearon algunas dudas que todavía no han terminado de aclarar. Entiende que se va a incrementar el gasto de personal.

Lizarraga jaunak hitza eskatu du eta galdetu du ea prozesua hasi zenetik langileen arteko giroa hobetu den; alkate jaunak erantzun dio, bere iritziz, aurrerapen handiak egin direla.

El Sr. Lizarraga pide la palabra y pregunta si desde que empezó el proceso el ambiente entre los trabajadores ha mejorado, a lo que el Sr. alcalde le indica que, a su juicio, se han experimentado avances importantes.

Lete jaunak eskatu du hitza, eta Barne Kudeaketarako Taldean parte hartzeko aukera izan duela esan du; aldaketetan erakutsi duten inplikazioagatik langileei zorionak eman behar zaizkiela adierazi du, eta antolamendu berria langileentzat ikuspegi profesionaletik egokia dela.

Pide la palabra el Sr. Lete, quien indica que ha tenido oportunidad de participar en el Comité de Gestión Interna, y que entiende que hay que felicitar a los trabajadores por su implicación en los cambios, añadiendo que entiende que el nuevo marco es bueno para los trabajadores en el sentido profesional.

Alkate jaunak jakinarazi du onartzeko proposatzen den antolamendu berria Barne Kudeaketarako Taldean aztertu dela aurrez.

El Sr. alcalde indica que la nueva organización cuya aprobación se propone ha sido analizada en el seno del propio Comité de Gestión Interna

Zinegotzien txanda amaitu denean, gai honi buruzko bozketa egin da; alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia eta Martin zinegotziek aldeko botoa eman dute (8 boto), eta Agirre (EAJ), Errazu (EAJ), Cantero (PSE-EE) eta Pastor (PSE-EE) zinegotziak abstenitu egin dira (4 abstentzio); beraz, proposatutako antolamendu eredu berria onartu egin da.

Finalizado el turno de intervenciones, y sometido el asunto a votación, con los votos a favor del Sr. alcalde y los concejales sr@s Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia y Martín ( 8 votos), y las abstenciones de los concejales sr@s Agirre ( PNV), Errazu (PNV), Cantero (PSE-EE) y Pastor (PSE-EE) (4 abstenciones), se acuerda aprobar el nuevo modelo organizativo propuesto.

**9.- Eskubide eta betebeharraren deuseztapena**

Alkate jaunak baliogabetzeari buruz aurkeztu duen proposamenaren berri eman du; alde batetik, aurreko ekitaldietatik kobratzeke eta aitorturik, eta gauzatuko ez diren zergak deuseztatzeko proposamena; eta bestetik, aurreko ekitaldietan aitortu eta ordainduko ez diren obligazioen deuseztapena, eta benetan bete ez direnak.

**9.- Anulación de derechos y obligaciones**

El Sr. Alcalde da cuenta de la propuesta presentada relativa a la anulación, por un lado de derechos reconocidos en ejercicios anteriores pendientes de cobro y que no se van a producir; y por otro, la anulación de obligaciones reconocidas en ejercicios anteriores y que no se van a satisfacer, y que realmente no se han ejecutado.

Ogasun Batzordearen irizpena kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, aho batez erabaki da:

Considerando el dictamen de la Comisión de Hacienda y sometido el asunto a votación, por unanimidad se acuerda:

**Lehenengo.-** Ondorengo eskubide hauek deuseztatzea onartu:

| | |
|---|---|
| I kap zerga zuzenak | 28.037,76 |
| II Kap.Zeharkako zergak | 688,95 |
| III Kap Tasas eta bestelako sarr | 882,20 |
| IV Transferentz. Arruntak | 0,52 |
| IV Transferentz kapital | 3.627,72 |
| Guztira | 33.237,15 |

**Primero.-** Aprobar la anulación de los derechos reconocidos siguientes:

| | |
|---|---|
| Cap. I Imptos directos | 28.037,76 |
| Cap. II Imptos. indiirectos……. | 688,95 |
| Cap III Tasas y otros ingresos | 882,20 |
| Cap IV Transferencias corrientes | 0,52 |
| Cap VII transferencias capital | 3.627,72 |
| TOTAL | 33.237,15 |

**Bigarren.-** Ondorengo obligazio hauek deuseztatzea onartu:

**Segundo**.- Aprobar la anulación de las obligaciones reconocidas siguientes:

| | |
|---|---|
| I kap personal | 15.765,51 |
| II kap. Ondasun arruntak …. | 5.708,48 |
| IV kap. Transf. Arruntak | 15.652,88 |
| VI kap. Inbertsioak | 25.002,35 |
| Guztira | 62.129,22 |

**Hirugarren.-** Hamabost egunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman erabaki hau, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegazioarik ez bada, behin-betikotzat hartuko da erabaki hau.

**10.- 2010eko aurrekontu orokorra**
**a) Aurrekontua**

Alkate jaunak adierazi du aurkeztutako aurrekontua nahiko zaila dela, kontuan hartuta gaur egun ekonomiaren arloan bizi dugun atzeraldia eta horrek zergen bilketan eragin duen murrizketa.
Aldi berean, aurrekontu ausarta dela adierazi du, gure ekonomia indarberritzeko administrazioak ahalegin berezia egin behar duela uste baitu; horrez gain, zorrotza da, eta ildo horretatik, gastuari lehengoan eusteaz gain, kargu publikoei zuzendutako esleipenak izoztu egin dira; bestalde, elkartasuna oinarri duen aurrekontua da, GKEei esleitzen zaizkien zenbatekoei eutsi egin zaielako, eta udal tasak ordaintzeko laguntzak areagotu egin direlako.

Inbertsioei zuzendutako diru kopuruak hazi egin direla esan du ondoren, E Planak finantzatutako obrak nahiz 2009ko aurrekontuetatik datozen beste batzuk kontuan hartu gabe. Laguntzarik izanez gero ere, laguntza horiek

| | |
|---|---|
| Cap I Personal | 15.765,51 |
| Cap. II Compras de bienes … | 5.708,48 |
| Cap.IV Transfere.Corrientes | 15.652,88 |
| Cap.VI Inversiones reales | 25.002,35 |
| TOTAL | 62.129,22 |

**Tercero.-** Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa durante quince días al objeto de que se presente alegaciones. De no producirse las mismas este acuerdo devendrá definitivo.

**10.- Presupuesto general 2010:**
**a) Presupuesto**

El Sr. alcalde indica que el presupuesto presentado es difícil dada la situación económica de recesión que estamos viviendo, y la merma de la capacidad tributaria que esto también conlleva.
Señala que a su vez, es un presupuesto atrevido, porque se entiende que la administración tiene que hacer un esfuerzo para reactivar nuestra economía., ; es también estricto, y en este sentido además de mantenerse el gasto, se congela la consignación destinada a cargors públicos.; además es un presupuesto solidario puesto que se mantiene la consignación destinada a las ONG y se incrementan las ayudas para abono de tasas municipales.

Sigue diciendo que se incrementa la dotación destinada a inversiones, sin tener en cuenta las obras financiadas por el Plan E, ni otras provenientes de incorporaciones del presupuesto de

eskuratzeko aukera emango duten agiri teknikoak eskura izateko asmoz, zenbait proiektu idaztera zuzendu da beste diru kopuru bat.
Kudeaketa tresna berrietara ere bideratu da beste kopuru bat, eta horixe da, esate baterako, sozietate publikoaren kasua.

2009. También hay una cantidad destinada a la redacción de proyectos con el objeto de disponer de documentos técnicos para acceder, en su caso, a ayudas si las hubiere. Asimismo se destina también una cantidad a nuevas herramientas de gestión, como es el caso de la sociedad pública.

Horrekin guztiarekin batera, alkate jaunak adierazi du gure Udalak nahiko egoera ekonomiko "ona" duela, oreka finantzarioa dugula, eta ez duela espero desorekarik sortzerik, nahiz eta tentsio une batzuk izan daitezkeen. Hala ere, sozietatearen bidez Sarralde besterentzea planteatu da. Langileei zuzendutako atala handitu egin dela adierazi du, enplegua sustatzeko programak txertatzeaz gain, langile teknikoak kontratatzeko aukera ere atal honen barnean sartu delako. Horrekin batera, Kudeaketa Planean zehaztutako helburuei erantzuteko, gastu finkoak handitu egin dira, eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsari dagokion itzulketa ere barnean hartu da.

El Sr. alcalde manifiesta asimismo que nuestro Ayuntamiento se encuenrea en "buena" situación económica, tenemos equilibrio financiero y no se espera un desequilibrio sin perjuicio de posibles momentos tensionales. No obstante se plantea la enajenación de Sarralde a través de la sociedad. Indica que se incrementa el capitulo destinado a personal por incluirse además de programas de fomento de empleo, la posible contratación de personal técnico. También se incrementan los gastos fijos para atender los objetivos fijados en el Plan de Gestión, y se contempla también la devolución del Fondo Foral de Financiación Municipal.

Azkenik, adierazi du garrantzitsua iruditzen zaiola, ohiko aurrekontuaren agiriaz gain, Urteko Kudeaketa Plana ere landu dela azaltzea. Aurrekontua gauzatzeko arauari dagokionez, beste ekitaldi batzuekin alderatuta ez duela aldaketarik adierazi du.

Por último señala que es importante indicar que además del documento de presupuesto habitual, también se ha elaborado el Plan de Gestión anual. Por lo que respecta a la Norma de Ejecución Presupuestaria indica que no presenta cambios respecto a otros ejercicios.

Zinegotzien txanda zabaldu denean, Martin jaunak eskatu du hitza, eta honek hitzez hitz ondoren idazten den testua irakurri du:

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra el Sr. Martín, quien procede a dar lectura al texto que se transcribe a continuación:

*Aurtengo aurrekontuaz hitz egin baino lehenago iazkoak gogoratu nahi genituzke. Iaz, aurrekontuak onartu genituenean, batez ere, bi puntutan oinarritu ginen:*

*1.- Herriko argiteriaren kontsumoaren %10ko beherapena*
*2.- Geure aurrekontuen %1 herri arteko elkartasunerako izan zedila*

*Bigarren puntu hau,gu guztion poztasunerako, oso ondo bete izan da.*

*Euskal Herrian ez dago beste herririk horrelakoa egiten ausartu denik. Benetan, harro egon gaitezkeela iruditzen zaigu.*

*Lehenengo puntuan, argiteriaren kontsumoaren murrizketan, ordea, ez da bete izan,eta ez dugu uste betetzeko asmo gehiegirik egon denik. Egia da, arazo handiak izan ditugula, batez ere, igerilekuarekin, eta horrek asko baldintzatu duela herriko elektrizitatearen kontsumoa. Baina, egia da baita ere, Eguberrietako argiteriaren erabilerarekin kontsumoa ez dugula murriztu. Guk ez dugu esaten argiteria hori ez jartzearekin lortuko genuela % 10ko jaitsiera, baina, sinbolikoki behintzat, oso urrats handia suposatuko luke. Gobernuarengan eta gobernuak bere hitza betetzeko ahaleginean daukagun ustea bermatuago geratuko litzake. Ez da horrela gertatu eta horrek, barkatuko diguzue, baina gure baitan nolabaiteko mesfidantza edo konfiantza falta sortu du.*
*Puntu honetan esan behar dugu ere,*

*Antes de empezar a hablar de los presupuestos para este año 2010 quisiéramos recordar los del 2009. Cuando, el año pasado aprobamos los presupuestos nos basamos, sobre todo, en dos puntos:*
*1.- Disminución del consumo de electricidad en un 10%.*
*2.- Destinar el 1% de nuestro presupuesto a la solidaridad con los pueblos.*
*Si bien en el cumplimiento de este segundo punto no ha habido ningún problema y todo se ha hecho como se había pactado para alegría y orgullo de nuestro pueblo. Son muy pocos por no decir ninguno los pueblos de Euskal Herria que dediquen el 1% de su presupuesto a la solidaridad.*
*En cuanto al primer punto, reducción del consumo energético en un 10%, sin embargo, no podemos decir lo mismo. No se ha cumplido lo pactado y no nos parece que haya habido demasiado interés en cumplirlo. Si bien es cierto que a lo largo del año hemos tenido muchos problemas con la piscina que han, de alguna manera, imposibilitado el pacto, no es menos cierto que el empleo de luminarias a lo largo de las navidades no han ayudado mucho a intentar llegar a esa reducción del 10%. Nosotros no decimos que la no iluminación navideña hubiera sido suficiente pero si que hubiera sido un paso simbólico muy importante para hacernos ver que el gobierno quería cumplir su palabra. No ha sido así y eso nos ha dejado un poso de desconfianza que quisiéramos superar este año. También tenemos que decir*

*U.G.L.E-k, gobernuak eskatuta, aurten egin duen lana oso meritua handikoa izan dela. Gure herriko argiteria guztia, banan banan, farola guztiak barne, arakatu ditu eta,beraz, non aurreztu dezakegun, non gastatzen dugun behar duguna baino eta zer nolako argiteria erabili dezakegun esan dizkigute.*

*Iragana iragan, aurtengo aurrekontuak, iazkoak bezalaxe makalaldiaren aurrekontuak dira eta batzorde guztietan gastuaren murrizketa egin da, batzuetan gehiago beste batzuetan baino. (Udaletxe barruko garbiketa eta eskola publikoko garbiketa aldera ditzakegu).*

*Hori horrela izanda gure konfiantza eman nahi diegu udal gobernu honi.*

*Espero dezagun, aurten bai, hitzartutakoari men egingo diozuela.*

*Gobernuak gurekin hartutako konpromisoak puntu hauetan zehaztu ditzakegu:*

*a) Energia kontsumoaren %20ko murrizketa. Aurtengoan bai! Aurtengoan horrela izango dela ziurtatu diguzue. Eta hori horrela izan dadin, UGLEri esker, urratsak eman dizkiezuela dirudi. Hala bedi!*

*b) Elkartasunarekiko geure aurrekontuaren % 1. Aurreko urtetik politika horrekin gabiltza, eta horrek gure herriari beste xarma, beste nortasun bat ematen diola uste dugu.*

